

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Kultura Sailak arte eszenikoko eta musikaleko 50.000 eurotik gorako aurrekontua duten proiektuetarako laguntzak eman ditu

*Diru-laguntzak, 1.100.000 eurokoak, honela banatuko dira: 2016an 595.000 euro eta 2017an 505.000 euro*

Asteartea, 2016.eko abuztuak 16

Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiak, gaur goizean, [www.navarra.es](http://www.navarra.es)

orrian, 50.000 eurotik gorako aurrekontua duten 2016-2017rako arte eszenikoko eta musikaleko proiektu artistikoetarako diru-laguntzen deialdiari

buruzko [Ebazpena](#) argitaratu du. Deialdi hori 1.100.000 euroz horniturik dago.

Nahitaezko bilerak egin ondoren, ebaluazio-batzordeak, jada, deialdi honetan onartutako eskabideek lortutako [puntuazioen emaitzak](#) argitaratu ditu, [gastuaren banaketa](#) erabakiz, jarraian zehazten denaren arabera:

2016an, 595.000 euro banatuko dira Asociacion Gayarre Amigos de la Ópera Elkartearen (175.000 euro), Asociacion Ópera de Cámara de Navarra Elkartearen (175.000 euro), Nafarroako Arte Eszenikoen Profesionalen Elkartearen (94.036 euro) eta Iruñeko Ganbera Abesbatzen Taldearen (150.964 euro) artean.

2017an, 505.000 euroko laguntzak banatuko dira Asociacion Gayarre Amigos de la Ópera Elkartearen (116.000 euro), Asociacion Ópera de Cámara de Navarra Elkartearen (116.000 euro), Nafarroako Arte Eszenikoen Profesionalen Elkartearen (53.627,50 euro), Iruñeko Ganbera Abesbatzen Taldearen (116.000 euro), Nafarroako Ganbera Abesbatzen (113.985 euro) eta Nafarroako Abesbatzen Federazioaren (31.664,05 euro) artean.

Fundación Flamenco On fire Fundazioaren eta Asociación de Cantautores Ojalá Elkartearen eskabideak ez direla onartu azpimarratu behar da, izan ere, ez dute 65 puntuko gutxiengoa lortu, oinarrietako 8.2.



Ópera de Cámara de Navarra elkartearen emanaldia.

puntuak adierazten denaren arabera.

Nafarroako Unibertsitatea Museoak aurkeztutako eskabidea ere baztertu egin da 2.1. oinarria, onuradunak irabazi asmorik gabeko erakunde artistikoak izatea behartzen duena, ez betetzeagatik.

Laguntzak Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren eta aipatu erakunde horietako bakoitzaren artean izenpetuko diren lankidetzak-hitzarmenen bitartez arautuko dira.

Kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legean xedatutakoaren arabera, deialdi honetan diru-laguntzen objektu diren proiektuak interes sozialeko proiektutzat hartuko dira dohaintzei, erabilera-maileguei edo komodatuei eta lankidetzak-hitzarmenei Foru Lege horretan aurreikusitako zerga-pizgarriak eta, baita, Sozietateen gaineko Zergan, babesletza-kontratuetatik eratorritako publizitate-gastuengatik kenkariei dagokienez, Ebazpen hau izenpetzen denetik izenpetuko diren hitzarmenen indarraldia amaitu bitartean, aurreikusitako pizgarriak aplikatzeko.

Kultur mezenasgoaren alorrean zerga-pizgarrien aplikazioa [maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legean](#)

eta aplikagarri zaion gainerako araudian ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzeari baldintzatuta dago; horretaz gain, hitzarmenean ezarriko diren beste betebeharrak batzuk ere bete beharko dituzte.

Laguntza horien onuradun diren erakundeen interes soziala Nafarroako Gobernuaren atarian argitaratuko da. Orduan, horiek beren komunikazioetan, aurkezpenetan, argitalpenetan eta agiriengan ["Mecna Zigiluaren](#)

anagrama erabili ahal izango dute".